

Gorka Knörr

Kantaria, politikaria eta enpresa aholkularia

1. Kultura eta hizkuntzaren defentsan oinarritutako katalanismo kulturalak XIX. mendetik hona, eta katalanismo politikoak azken hamarkadetan indar handia izan dute. Baina independentziaren aldeko aldarriak azken lau urteotan baino ez du lortu hegemonikoa izatea. Nola osatu da diskurtso subiranista hori, eta nola iritsi da hegemoniko izatera?

Diskurtso subiranista edo independentista azken urteotan nola nagusituz joan den aztertzea oso interesgarria izan ez ezik, oso garrantzitsua da, egoera nola aldatu den ulertu nahi bada behintzat. 2006an, Bartzelonara iristen naizenean, parekotasun handia dago egoera politikoaren aldetik lehengo hamarkadarekin alderatuta. Estatutu berria oso murriztuta bozkutzen da (besteak beste, Zapatero eta Masen arteko akordioari esker), ERCren ezezkoa tarteko; gero hauteskundeak datoz, ERCK mantendu egiten du bere indarra Legebiltzarrean eta bigarren hirukoitza –PSC-ERC-ICV– osatzen da.

Nik uste dut une hartan PPK ordurako abian zuen kanpaina gelditu edo behintzat leundu izan balu, agian gaur Katalunian, harako kompetentzia hura nahi dudala edo finantziarioa hobetu beharko genukeela diskutitzen egongo lirakeela. Baina PPK Auzitegi Konstituzionalera jo zuen,

Kataluniako Estatutuak Konstituzioaren kontrako artikulua zenbait zituelakoan. Lau urte geroago, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatutua larru gorritan lagatzen du, eta, horrela, trenbidea jarri egiten da, bi trenek, Espainiakoak eta Kataluniakoak, talka egin dezaten.

Konstituzionalaren erabakia 2010ean gertatzen da, eta orduan Kataluniako populazioa kalera irteten da, Òmnium Cultural elkarteak deiturik, Bartzelonako manifestazio erraldoian, uztailaren 10ean.

Baina aurretik zenbait gauza gertatu ziren jendetza ikaragarri hura kalera irten zedin eta geroago bizitzen ari garen mugimendu geldiezina sor zedin. Labur egitearen mesedetan, nik data eta gertakizun hauek markatuko nituzke:

- 2007ko uda eta udazkena. Azpiegituren inguruko krisia. Abenduaren 1ean, ehunka milaka pertsona ateratzen dira kalera *Tenim el dret a decidir sobre les nostres infraestructures* lelopean. Lehen, Salamancako paperen erreklamazioa, aireportuaren aldeko aldarrikapena eta Gas Natural-ek Endesa hartzeko egindako 'OPA'-ren aurkako mugimendu politikoak gertatzen dira.
- 2009ko ekaina. Arenys de Munteko udalbatzak irailaren 11n independentziaren inguruko kontsulta baterako deialdia egitea erabakitzen du. Sua pizten hasi da udal eta herrietan.
- 2010eko ekaina. Ekainaren 28an, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatutuari buruzko ebazpena jakinarazten du. Umiliazio sentimenduak eraginda, uztailaren 10ean jende-uholde bat ateratzen da Bartzelonako kaleetara, *Som una nació. Nosaltres decidim* lelopean, Òmnium Culturelek deiturik.
- 2012ko martxoa. Asamblea Nacional Catalana (ANC) delakoaren sorrera ekitaldia, Bartzelonako Palau Sant

2007ko uda eta udazkena. Azpiegituren inguruko krisia. Abenduaren 1ean, ehunka milaka pertsona ateratzen dira kalera

Jordin. Politikariak harmailetan daude. Jendeak hartu du dagoeneko prozesuaren protagonismoa.

- 2012ko uda. Krisiaren gogortasunagatik, Generalitatearen finantzak kolapsoan daude, eta dirua eskatu behar du Madrilera, likidoa izango badu. Beste umiliazio bat bere BPGtik urtero batez beste %8,5 (16.000 milioi euro) kentzen zaion lurralde baten gobernuarentzat. Jendeak gero eta gehiago uztartzen du egoera ekonomiko latza eta Espainiarekiko dependentzia.
- 2012ko iraila. Diadaren egunerako Generalitateak eta CiUk itun fiskalaren aldeko aldarrikapena proposatzen dute. Baina ANCK proposatutako *Catalunya, nou Estat d'Europa* nagusitzen da. Milioi bat pertsona kalean.
- 2013ko Diada. ANC eta Òmniumek antolatutako, 1,6 milioi pertsonak osatzen dute Via Catalana, independentzia aldarrikatzeko.

Ez daukagu lekurik gertatu diren guztiak aipatu eta aztertzeko, baina aldarri horiek mugimendu honen abiada, garrantzi eta dimentsioaren ideia bat egiteko adibide egokiak direla uste dut.

2. 2010etik hona, hainbat plataforma eta elkartetan antolatutako gizarte zibilak hartu du prozesu subiranistaren gidaritza, alderdi eta erakunde politikoak bide horretara ekartzea lortuz. Zergatik eta nola iritsi da gizarte zibila antolaketa-maila eta erakarpen-indar hori izatera?

Aldez aurretik esan dezadan, egiaren mesedetan, ez dela dudarik alderdi batzuk, ERC eta CUP, kasu, lehendik independentziaren alde zeudela. Eta ICVko gehiengo nabarmen bat kontsultaren alde. Herriaren indarra izan da, ordea, CDC independentziaren sailera ekarri duena, ordura arte CDCren eta UDCren zati bat baino ez zegoen sailera, hain zuzen.

Katalunian gizarte mugimenduak eta era guztietako antolakuntza soziala oso indartsuak izan dira historikoki, nahiz eta, beste hainbeste tokitan bezala, gizarte kontsumista eta materialista honetan gizarte mugimenduak behera egin duen.

Baina Katalunian mugimendu-sare hori existitzeak lagundu egin du, zalantzarik gabe, erabakitzeko eskubidea gizarteratzen, are gehiago krisi ekonomikoak han eta hemen bere atzaparrak erakutsi dituenean. Urteetan zehar, ezkerreko indarren independentismoa behin eta berriro saiatu zen, diskurtso nazionala eta diskurtso soziala gauza bera zirela aldarrikatuz. Esaterako, Espainiaren aldetikako espoliazio fiskalarekin bukatzea beharrezkoa zela, gizarteko klase herritarrak hobeto bizi zitezten. Mezu horrek beti egin zuen topo *pujolismo*-aren hegemoniarekin. *Això no toca*-ren garaiak ziren.

Krisi ekonomiko latzari esker, 2008tik aurrera, jendea diskurtso hori erosten hasten da, bereganatu egiten du. Espoliazioarekin bukatu behar da, itun fiskal bat gutxieneko tresna bezala ikusten hasten da, eta, apurka-apurka, ikusita Espainiaren aldetik konponbiderik ez dagoela, erabakitzeko eskubidearen inguruko ekimenak eta plataformak osatzen hasten dira. Eta konturatu orduko, dozenaka, ehunka herri eta herrixketan jaiotzen hasiak dira tokian tokiko plataformak. Hori da, besteak beste, prozesu honen irakaspen bat, zeren, nahiz eta alderdi abertzaleen (ERC eta CDC) presentzia nabarmena izan, jende xehea baita prozesuaren protagonismoa eta neurri handi batean gidaritza hartzen duena.

Eta protagonismo hori benetan erabakigarria izan dadin, Assemblée Nacional Catalana (ANC) sortzea izan da gertakizunik garrantzitsuena. Izan ere, jendeak ez du izan inolako arazorik erreferente bakar eta apartidista batek markatutako ildoak eta deialdiak jarraitzeko. Bi urtetan izugarritzko aurre-rapausoa eman da.

Gizarte mugimendu horrekin, paraleloki, alderdiek bere lana egin dute Legebiltzarrean, non kontsulta aurrera ateratzeko pauso batzuk egin dituzten: Katalunia subjektu politiko deklaratu, kontsulten legea abiatu, eta Pacte Nacional pel Dret a Decidir delakoa Legebiltzarraren baitan eratu, besteak beste.

3. Nolako jarrera hartu dute gizarte katalaneko sektore ezberdinek prozesu subiranistaren aurrean? Zehazkiago,

nola erantzun dute eragile ekonomikoek, enpresari eta sindikatuek? Eta kulturaren eta sortzaileen munduak?

Foment patronalean ez zuten ezta aditu ere egin nahi prozesuaz. Hor biltzen da kontrako frontea, nahiz eta azken hilabeteotan, egoerak bortxaturik, distantzia hartu behar izan duten CEOerekiko. Duela bi urtetik hona, PIMEC-ek, patronalik handienak, gero eta jarrera argiagoak ditu kontsultaren inguruan, bai eta Cecot patronal txiki bezain garrantzitsuak

Prozesua mugimendu oso zeharkakoa izaki, guztiz normala da autonomoak eta enpresari txiki eta ertainak kontsultaren alde egotea

ere. Prozesua mugimendu oso zeharkakoa izaki, guztiz normala da autonomoak eta enpresari txiki eta ertainak kontsultaren alde egotea. Pacte Nacional pel Dret a Decidir delakoan, PIMEC, FEPIME, Cecot, merkataritza ganberak, sindikatuak (CCOO, UGT, Unió de Pagesos, USO, Intersindical...) eta era guztietako elkarteak –Irakaskuntzako Gura-

so Elkarteak, Hirugarren Sektoreko Mahaia, Omnium, ANC, gizarte mugimendu ugari, kirol elkarteak, kooperatibak, udalak...– biltzen dira. Erakunde eta eragile sozial eta ekonomiko oso desberdinak, baina helburu bakarra: herriari galdetu behar zaio, herriak bere iritzia adierazteko eskubidea dauka-eta.

Kultur arloan gehiengoa kontsultaren alde dago, nabarmen; bazeuden, egon, betiko dibinoak, baina mundu horren zati handi baten erreferente politikorik handiena, PSC, minimoen azpitik dago, olatuaren kontra eta inork sinisten ez duen federalismoaren gozokia eskainiz. Ikusi dugu zein den sozialisten federalismoa Euskal Herrian, Nafarroan kasu.

4. 2014ko agertoki politikoa definituta dagoen bezala, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talkak saihestezina dirudi. Epe laburrera begira, zein erreakzio izango dute Kataluniako alderdi eta erakunde politikoek zein gizarte zibilak?

Inkesten arabera, Kataluniako populazioaren gehiengo nabarmenak (%80 gutxienez) irmo jarraitzen da kontsultaren alde. Centre d'Estudis d'Opinió delakoaren azkeneko inkestak zera dio, katalanen %87,3k onartuko lukeela erreferendum batean Katalunia Europako estatu berri bat bilakatzeko atara zitekeen emaitza.

Inkesta guztietan, baina, ahuleziatzko puntu bat azaltzen da beti. Katalunia Europako Batasunetik kanpo gelditzeko arrisku nabarmenaren aurrean, orduan bai kolokan egongo litzakeela katalanen erabateko independentziaren aldeko gehiengoaren jarrera. Horregatik, beldurraren politika bultzatzen saiatzen ari dira gogor Espainiako diplomazia eta bozeramaile politiko unionistak, horretan ikusten baitute aukera bakarra independentziaren aldeko olatua gelditzeko.

Hori, kontsulta egitekotan. Hau da, kontuz zure botoarekin. Baina kontsulta ez dela egingo diote Espainiatik. Orduan, hau da agertoki bakarra: hauteskunde plebisitarioak eta independentziaren aldeko aldebakarreko adierazpena. Espainiak zazpi hilabete baino ez ditu kontraeskaintza bat egiteko. Ez egitekotan, Katalunia badoa. Orain hiru urte, beste gauza bat esango nuen; baina egoera ikusita, eta agertoki politikoa-ren zentroa okupatzen duen alderdiak –CDC, alegia– behin pausoa emanaz gero, ez dago atzera bueltarik. Egitekotan, garesti ordainduko luke CDCK.

5. Kataluniako prozesu subiranistaren azken fase edo geltokia estatu independentea da. Azken helburua argi egonagatik, zer proposamen daude estatu horren diseinuaren definizioari begira?

Jende asko ari da lanean, arlo diferenteetan, nahiz eta oraindik goiz izan estatu berriaren barne-egiturari buruzko proposamenak egiteko. Egunero entzuten ahal ditugun posizionamenduen arabera, nik uste dut argi dagoela jendeak ez duela nahi bakarrik estatu propioa izan, baizik eta estatu propio eta desberdin bat. Horrenbestez, azken urteotan gizartean nahiz politikan nabarmendu diren aldaketan arabera, estatu

berri horretan gauzak modu desberdin batean egin beharko dira derrigor. Gauza asko aldatuko dira mundu politikoan, finantzieroa, baita ere komunikabideetan, sindikatuetan; jendea nazkatuta dago antzinako jokaerez.

Bestalde, alderdi politikoek birkonposaketa bat etorriko da, jadanik ikusten ari gara zer mugimendu dauden. Horrek aldaketak ekarriko ditu arlo guztietan, dela kultura, dela ekonomia, ingurumena... Estatu berri bati politika, kultura, finantza, hezkuntza eta oro har etika berri batean oinarritutako gizartegintza dagokio.

6. Zer irakaspen izan ditzake Euskal Herriarentzat Kataluniaren prozesu subiranistak? Eta zer ekarpen egin diezaioke Euskal Herriak prozesu horri?

Nik urteak eman ditut hitzaldiak ematen Katalunian, erabakitzeko eskubide eta independentziaren alde. Orain beste une batean gaude, non gauzarik inportanteena baita gizarteak bere askapenerako erakutsi duen indarra nola bideratu, prozesua, erreferendum baten bidez, gauzatu dadin. Euskal Herriak ezin du besterik egin gogoan hartzea baino, eta ikasi zeinen inportantea den independentziaren aldeko mugimendua gizartearen baitatik abiatu eta eratzea. Azkeneko hamabost urte honetan ikusi da argi: Euskal Autonomia Erkidegoan, Ibarretxe lehendakariak prozesu politiko bat jarri nahi izan zuen abian. Ez zuen erraza: Espainiaren oldarra ez ezik, kontra baitzuten PSE, PP, ETA eta ezker abertzalea, azken horiek bere protagonismoa nahi zuten-eta. Hori, gehienbat, prozesu politiko bat izan zen, non gizartearen gehiengoa, nolabait, begira zegoen.

Kataluniakoa, aldiz, askoz gehiago da prozesu soziala, politikoa baino. Eta hor bai badaukagu zer ikasi. Ezin dugu Via Catalana ikusi eta hurrengo goizean alderdi politiko baten Euskal Herriaren horrelako ekitaldi bat antolatuko duela aldarrikatu.

Nire aholkua, beraz, hauxe izango litzateke, laburbilduta: has zaitezte gizarte mugimenduetatik, ahalik eta era

zeharkakoenean, eta alderdi politikoetatik ahalik eta urrutien. Alderdi politikoek lagundu behar dute, ez protagonista papera jokatu. Hitz batean, joan *Gazta zati bat* dokumentala ikustera, eta, ados bazinete, Gure Esku Dago ekimenean ize-na eman ezazue. 